

EUROPAREN ETORKIZUNAREN INGURUKO IKUSPEGIA



EUSKADI
BASQUE COUNTRY





AURKIBIDEA

Europaren etorkizunaren inguruko ikuspegia Hitzaurrea: Europa: proiektu bakarra munduan	2
--	---

Sarrera	5
---------	---

1. Europa soziala	8
-------------------	---

2. Europa lehiakorra	12
----------------------	----

3. Europa ekonomiko-monetarioa	15
--------------------------------	----

4. Europa ireki eta solidarioa	20
--------------------------------	----

5. Europa iraunkorra	24
----------------------	----

6. Europa politikoa	27
---------------------	----

7. Euskadiren jarrera	32
-----------------------	----



EUROPAREN ETORKIZUNAREN INGURUKO IKUSPEGIA

HITZAURRERA

EUROPA: PROIEKTU BAKARRA MUNDUAN

1989an Berlingo harresiaren erorialdiak azaleratu zuen mundu multipolarrak Europa nazioartean eragile gisa berresteko eta izaera federaleko 1950eko Schumann Adierazpenean aipatutako integrazio-proiekturako zilegitasuna irabazteko erronkaren aurrean kokatu zuen. Batasunak bete-betean ekin zion egun amaitu ez den hedatze-prozesuari, eta horrek Europaren mugen (*limes*) gaia mahaigaineratu zuen. Prozesu horrek eragindako mota askotako ondorioak bereganatzeko denborarik gabe, Europar Batasunak duela hamarkada bat hasitako finantza-, ekonomia- eta politika-krisi sakonari egin behar izan zion aurre.

Krisia ez da erabat gainditu, baina Europak bizirauteko gaitasuna izan du, eta, 2017tik aurrera, nolabaiteko optimismora itzuli dela ondoriozta daiteke. Edonola ere, bertan dira euroeszeptikoek, Europaren kontrakoek eta integrazio-prozesuaren aurkakoek. Gaur egun, Europar Batasunak ziurgabetasunean mugitzen jarraitzen du eta zilegitasun falta ez bada ere, herritarren atxikimendu falta nabari zaio.

Espiritu kritikoari uko egin gabe, komenigarria da Batasunak eman dizkigun onuren inguruko hausnarketa laburra egitea; abantailak oso modu naturalean ulertu ditugu eta badirudi gauzen egoera naturalaren ondorio direla.

Gaur egun, zirkulazio askearen printzipioa eta komunitateko herritar baldintza batuta, edozein Estatu kidetan bizi, ikasi eta lan egin dezakegu baldintza-berdintasunean. Gure gazteek beste kultura batzuk eskuratzeko aukera dute, eta Europako unibertsitateetan ikas dezakete oso erraz. Diru bera dugu euro gunean. Schengen eremuaren baitan, herrialde batetik bestera pasaporterik gabe bidaia dezakegu eta telefonia mugikorrean “roaming” tarifarik aplikatu gabe.

Europar Batasunaren markoan kalitate- eta segurtasun-estandar handien arabera egindako produktuak kontsumitzeko bermea dugu. Barne-merkatuari esker, produktu onenak prezio



lehiakorrenetan eskura ditzakegu. Horrez gain, Europako enpresek esportazioak areagotu eta beren helmugak dibertsifikatu dituzte.

Pertsona orok du sufragio aktibo eta pasiborako eskubidea udal eta europar hauteskundeetan, edozein Estatu kidean. Europatik kanpo ezbehar edo gerra-gatazka moduko egoeren ondorioz, gure herritarrek Batasuneko edozein konsulatu edo enbaxadatan jaso dezakete arreta.

Europar Batasunaren parte izateari esker, Euskadin oparotasun, hazkunde eta enplegu-maila handiagoa dugu. Hortaz, Eusko Jaurlaritzak, Euskadi Batasunean sartu zenetik 25 urte betetzen diren honetan, egindako ebaluazioak honako ondorio hau dakar:

"Emitza makroekonomikoen euskal herritarren errentak eta ongizateak gora egin dutela adierazten dute... Horiei dagozkien zifretan komunitatearen laguntza oso altua izan ez bada ere, zalantzarik gabe komunitatearen egitura-laguntzak eta horrek dakartzan ekonomia-plangintza eta programaziorako metodoek euskal ekonomiaren modernizazioari eta lehiakortasunari lagundu diote".

Zuzeneko laguntza ekonomikoak jaso ditugu euskal nekazaritza eta arrantzarantz, Nekazaritza Politika Bateratuaren eta Itsaso eta Arrantzarako Europako Funtsaren laguntzen bitartez. Finantziarioa eskuratu dugu Europako hainbat programan bitartez, esaterako, I+B+g sustatzeko Horizon 2020 programaren,

ingurumenerako Life programaren edo gazteentzako Erasmus unibertsitate-programaren bitartez. Egunerokotasunean erabiltzen ditugun azpiegitura askok jaso dute Europar Batasunaren finantza-laguntza garrantzitsua. Eusko Jaurlaritzaren kalkuluen arabera, Europar Batasunean sartu zenetik gure Komunitateak jasotako zuzeneko laguntza europarraren edo eskualde izaerakoan guztizko zenbatekoa 4.200 milioi eurotik gorakoa da.

Zalantzarik gabe, aipatu abantaila-sortak ordain eta konpromiso nabarmenak ere eskatu ditu, eta horien artean azpimarratzekoak dira, esaterako, egitura-erreforma mingarriak egitea edo hainbat gaitan komunitatearen agintaritza aitortzea, adibidez, Europako Batzordeak Estatu Laguntzetarako gaitan hartutako erabakiak edo Batasunaren Justizia Auzitegiaren foruaren menpekoak izatea. Egia da, baita ere, eta baikortasunaren ikuspegitik, Justizia Auzitegi horrek bateragarri izendatu zituela Euskal Kontzertu Ekonomikoa eta Komunitate Zuzenbideko xedapenak eta, hala, lehia askearen araudia ustez hausteari buruzko eztabaida behingoz ebatzi eta gure sistemari bete-beteko bermeak eman zitzaizkion Europan.

Edonola ere, eta aipatu abantaila praktikoan gainetik, Europar Batasuna balioen komunitatea eta askatasunezko espazio komuna izan da, egun da eta etorkizunean izango da. Oinarri ukaezin horren gainean lortu dugu eraikitzea ongizate eta elkartasun maila handiko espazio publiko bat, baita munduan



lehiakorrena den ekonomietako bat eraiki ere.

Orain, etorkizunera begiratu eta guztion erronka da Europaren proiektua herritarrentzat erabilgarri egitea berriz eta, aldi berean, herritarren parte-hartzean sakontzea. Alde batetik, aurrerapen sozial eta ekonomikoari dagokionez; eta bestetik, askatasun, berdintasun, bake- eta demokrazia-elkarbizitzaren balioak bermatzeko. Iraunkortasunarekin, etorkizuneko belaunaldiekin eta planetako beste herrienganako elkartasunarekin konprometitutako etorkizuneko proiektua suspertzen laguntzea dagokigu.

Europar Batasunaren parte izatearen abantailak ukaezinak dira. Edonola ere, elkarrekin hausnartu eta lan egiteko unea da, komunitate-proiektua berbideratu eta indartzeko; sortze-balioak berreskuratu eta pertsonak Europaren jardueraren ardatz bilakatzeko unea da. Europa oparoa, ongizatea sortzen duena, solidarioa, berdinzalea, aniztasunean batasuna duena eta benetako maila anitzeko gobernantza oinarri duena eraikitzeko aukera dugu. Hori da *Europako herrien arteko gero eta batasun estuagoa lortzeko bidea*, baita etorkizuneko proiektu horrekin konpromisoa, modu askean eta ezagueraz, hartzeko bidea ere.

Iñigo URKULLU RENTERIA
Lehendakari



SARRERA

Europar Batasunak 1951ean IAEa sortu zenetik ezagutu duen krisirik larriena pasa du; Jean-Claude Juncker Europako Batzordeko presidentea krisi existentziala zela esatera ere iritsi zen. Lisboako Ituna onartzeko pairatutako zailtasunen ondoren –Frantziak eta Holandak Europako konstituzioa ezartzen duen Itunari ezetza eman zioten eta Irlandan erreferendum bikoitza egin zen– 2009ko abenduaren 1ean sartu zen indarrean Ituna. Ez zen nabaria oraindik Estatu Batuetan piztua zen finantza-krisia bere gordintasunean, baina denbora gutxira gertatu zen –, 2010etik aurrera. Horren ondorioz, zor subiranoaren krisia iritsi, zalantzan jarri zuen euroaren beraren biziraupena eta Europaren integrazio-prozesuaren bideragarritasunaren eta etorkizunaren inguruko kezka hasi ziren.

Ez zen, hala ere, Europar Batasunak aurre egin beharreko krisi bakarra izan, 2015ean errefuxiatuen krisi humanitarioak punturik gorena jo eta Estatu kide ezberdinen ikuspegi trinkotasunik eza azaleratu baitzuen. Azkenik, azken hamarkadetan Europan inoiz ezagututako langabezia-, desberdintasun- eta prekarietate-tasak eragin zuen krisi ekonomikoa gainditzin hasia zenean, Batasunak orain artean inoiz ikusitako krisi berri bat dauka: lehenengo aldiz, Estatu kide batek, Erresuma Batuak, Europar Batasuna eztea erabaki zuen 2016ko ekainean. Garrantzi berekoak dira, baita ere, demografia-erronka, erlijio arrazoizko

terrorismoa, Errusiaren erronka geopolitikoak edo Ameriketako Estatu Batuen atzerriko politiken norabide berria.

Bestalde, nazioarteko gizarteak paradigma-aldaketari egin behar dio aurre, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak bat-batean sartu baitira, eta fluxu handiko eta harremanetako heterarkia ezaugarri dituen ordena mundial berri bat osatzen laguntzen dute. Estatu klasikoetatik haragoko eragile berriak agertzen ari dira nazioartean, Estatuak modu isolatuan ebatzi ezin dituzten arazo eta mehatxuak sortzen ari dira eta Estatuaren arteko lankidetzak eta Estatu barruko boterearen arteko lankidetzak arrisku globalei behar bezalako erantzuna emateko eskatzen ari dira.

Testuinguru horretan, Europako Batzordeak Europar Batasunaren etorkizunari buruzko eztabaida proposatu du eta, horretarako, Europaren Etorkizunari buruzko Liburu Zuria argitaratu zuen 2017ko martxoaren 1ean.

Testuinguru eta marko horretan, Eusko Jaurlaritzak bere iritzia eman nahi du eta hori barne-hausnarketaren eta erakundeek, eragile ekonomiko eta sozialek eta gizarte zibilak 2017ko bigarren seihilekoan egindako *Herritarren arteko Elkarriketak* [1] ekimenaren bitartez egindako ekarpenen ondorioa da.

Eusko Jaurlaritzak erronkari aurre egin nahi dio, horrek daukan dimentsioa eta garrantziaz jabetuta, eta pasa den



mendeko gerrarte garaian abiatu eta, beranduago, Agirre Lehendakaria buru zuela garatutako ikuspegi europeista berretsi eta eguneratu nahi du. Izan ere, Agirre Lehendakariak eta Landaburu Lehendakariordeak Nazioarteko Talde Berrien sorreran parte hartu zuten 1947 urtean; Talde horiek izan ziren Europako demokrazia kristauaren aitzindariak eta, azken batean, Europako integrazio politikoaren sustatzaileak, familia sozialdemokratarekin batera.

Eusko Jaurlaritzak Europa batuaren ideia defendatu zuen. Agirre doktrinaren bitartez, Euskadi libre bat eskatzen zen, Europa federal batean. Agirrek bat egiten zuen Richard Coudenhove-Kalergi austriarraren “Paneuropar” ideiarekin. Horren arabera, Europaren eraikuntzak oinarri handiagoa zuen politikan eta ez hainbeste geografian. Beranduago, integrazio federalistaren ideia gehitu zuen eta horren funtsezko alderdia zen batasuna aniztasunean sortzea.

II. Mundu Gerraren osteko urteetan ezarri ziren Europako diskurtsoaren oinarriak. Agirre Doktrinak bat egiten zuen diskurtso horrekin eta Euskadiren aitortza eta parte-hartze osoa eskatzen zuen estatu-nazioaren krisiari aurre egiteko eta Estatuetan baino estatuz azpiko eragileetan oinarritutako Europa bat osatzeko eredu gisa. Azken buruan, Herrien eskubidea defendatu zuen, nahikoa borondate politiko eta askatasunezko autogobernurako gaitasuna duten Herriena.

Euskal Mugimendu Federalista 1947an sortu zen eta

euskal nazionalistek, errepublikarrek eta sozialistek osatu zuten. Europako Mugimendu Federalari atxiki ziren eta hori 1948an bildu zen Hagako Kongresuan. Konferentzia hori –70. urteurrena du orain– Europaren eraikuntzaren hastapen gisa hartu da aho batez.

Landaburu Lehendakariordeak ere Europa federalaren aldeko konfiantza adierazi zuen eta bere hitzetan, “bihotzik gabe, Europa kontzeptu abstraktua baino ez da izango soziologo eta politikarientzat, eta interesik gabekoa gehiengoarentzat”.

“Today the Europe of the States is being constructed because it is the easiest and fastest to make and because one of the stimuli for organising Europe is fear. When this fear subsides and doctrine matures, it will be possible to build a Europe of the Peoples. In that Europe, no one will be able to deny us our place as a federalist and pacifist people, since Europe will have no other finality than peace”
(Landaburu).

Garaiotan, eta Europaren proiektuaren garrantziak jakitun, Eusko Jaurlaritzak bere horretan eusten dio Europarekiko konpromisoari eta europar proiektuak eta horren balioek bake, errespetu, ongizate eta elkartasun alorretan adierazten dutenarekiko.

Hala adierazi du 1996 eta 2004ko Gobernuren arteko Konferentzien harira egindako adierazpen instituzionaletan; Erromako Itunaren urteurrenaren harira egindako adierazpen instituzionaletan (2007 eta



2017) edo Eusko Jaurlaritzak Amsterdam, Niza eta Lisboaan Itunean dagokienez adierazi duen jarreraren.

Erromako Itunaren 60. urteurrenean egindako adierazpenean, Euskadik europar proiektuan duen jarrera definitu zuen Iñigo Urkullu Lehendakariak. Jarraian dituzue adierazpen horren zati batzuk:

"Erromatik Lisboa, Maastricht, Amsterdam eta Nizatik igarota, Batasunaren Ituna bake-etorkizunaren partekatutako helburua da eta oinarri ditu elkartasunaren, justizia sozialaren eta demokraziaren balioak, integrazio gradualaren prozesu baten bitartez".

"Integrazio handiagoak ez du uniformetasuna esan nahi eta ezberdinen arteko topaketa, aniztasunaren batuketa eta Europa osatzen dugun herrion borondateari errespetua oinarri hartuta izan behar du aurrera egiteko aukera".

"Ekintza politikoan eta erakundeetan herritarrei konfiantza itzuliko dien Europa eskatzen dugu. Parte-hartze eta subiranotasun partekatuaren unea da".

Halaber, Euskadi EB osatzen duten herri eta nazioek Europako integrazio politikoaren prozesuan funtzio aktiboa izatea eskatzen aritu da. Horretarako, EBren erakunde-egituran parte hartzeko eredu berriak eskatu ditu, subsidiaritate-printzipioan oinarritutako maila anitzeko gobernantza eraginkorra lortzeko. Euskadik ko-subiranotasuna aldarrikatzen du eta, aldi berean, lankidetzeta eta erantzunkidetasuna eskaintzen ditu Europak aurre egin beharreko erronkei erantzuteko. Horren guztiaren helburua da herritarrek etorkizuneko

proiektu batekiko konfiantza eta atxikipena berreskuratzea.

Dokumentu honek Euskadik Europar Batasunaren etorkizunari buruz duen ikuspegia biltzen du, gero eta globalizatuagoa den eta interdependentziek eta arrisku globalei aurreko egiteko beharrak oinarritutako testuinguruan. Aldi berean, Europa eraikuntza federal gisa eratzearen ideia defendatu zuten euskal aitzindariak omenaldia egin nahi die. Kontzeptu horrek, balio humanista irmoak oinarri hartuta, bakean eta askatasunean oinarritutako aurrerabidea ahalbidetuko luke.

[1] Eusko Jaurlaritzak, Eskualdeen Europako Batzordearekin batera, Europaren etorkizunari buruzko hiru Europar Elkarrizketa antolatatu zituen, euskal herritarrei zuzenduta, euskal hiru hiriburuetan 2017ko bigarren seihilekoan. Lehenengo Elkarrizketa irailean egin zen eta "Europa Berritzaila, Enpresa-Unibertsitate-Gizartea lotura-eredu berri baterantz" zuen izena. Bigarrena azaroan egin zen eta "Maila anitzeko Gobernantza, Para-diplomazia eta Estatuz azpiko eragileen funtzioa etorkizuneko Europar" gaiari buruzkoa izan zen. Hirugarren Elkarrizketa abenduan antolatuta zen eta "Talentuaren Europako Ekosistema: gazteentzako aukera handiak" gaia jorratu zuen. Aipatu Europar Elkarrizketa horiek antolatuzko, Eusko Jaurlaritzak hainbat erakunderen laguntza jaso zuen, hauena: hiru Foru Aldundiak, hiru euskal hiriburuak Udalak, Euskadiko Udalerrien Elkartea -EUDEL-, hiru euskal unibertsitateak, Lehiakortasunerako Euskal Institutua -Orkestra-, Gobernantza Demokratikorako Institutua -Globernance - eta hainbat eragile sozioekonomiko.



1. EUROPA SOZIALA

EBren Itunek garapen iraunkorraren alde lan egitea eskatzen dute, enplegu osoa eta aurrerapen soziala izateko joera duen merkatu-ekonomia soziala oinarri hartuta. Behar bezalako gizarte-babesaren bermearen, bazterketa sozialaren aurkako borrokaren eta hezkuntza eta prestakuntza maila altuaren alde egiten dute. Halaber, Batasunak diskriminazioa errotik kendu eta justizia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta belaunaldien arteko elkertasuna sustatu behar ditu. Hala ere, EBk europar herritarrei zuzendutako neurri zuzenak ditu.

Itunetan ezarritakoa hori bada ere, praktikan Europa sozialari emandako ikuspuntua, orain artean, instrumentalista eta ideologia funtzionalaren menpekoea izan da: integrazio soziala merkatuen integrazioaren ondorio automatikoea izango zela uste zen. Baldintza hori ez da bete eta arestiko krisiak Europako herritarrei eragiten dien desberdintasun sozial eta beharrian-egoera nabarmenak azaleratu ditu.

Hori dela eta, et Europaren etorkizunari buruzko eztabaida global horren parte gisa, dimentsio sozialari buruzko hausnarketa abiarazi da, 2025 urtea helmuga. Hausnarketaren ardatz dira Europako gizartearen etorkizuneko eraldaketak, erronka sozialei aurre egiteko hezkuntza-sistemak hobetu eta bizialdi osoko prestakuntzaren beharra eta lan-egoera dinamikoetarako prest egotea. Eztabaida horrekin

batera, Europako erakundeek elkarrekin aldarrikatu zuten, 2017ko azaroan, Eskubide Sozialen Europako Zutabea. Zutabe horrek funtsezko 20 printzipio eta eskubide ezartzen ditu, Europako herritar guztientzako aukera-berdintasuna eta lan-merkaturatzeko aukera, bidezko lan-baldintzak eta gizarte-babesa eta gizarteratzea indartzeko. Azken xede du herritarrei haien eskubideak bete-betea betetzea bermatzea, aipatu erronkei aurre egiteko Europako eredu soziala egokitzearen bidez.

Testuinguru horretan, jarraian azalduko dira Eusko Jaurlaritzaren ikuspuntutik etorkizun hurbilean benetako dimentsio europarra lortzeko funtsezkoak behar luketen elementuak.

- Eskubide Sozialen Europako Zutabea ezin da programa-adierazpen soil bat izan, benetako paradigma-aldaketa ahalbidetzeko urratsak bideratu eta ezarri behar ditu: aurrekontu-austeritatea alde batera utzi eta erakunde ezberdinek dimentsio sozialerako beharrezko politikak abian jartzea eta egonkortasun makroekonomikoaren helburua bat etorriko diren egoerara pasa behar dugu.
- Beharrezkoa da Eskubide Sozialen Europako Zutabeak EB osoan bidezko lan-merkatu bat lortzen laguntzea eta, aldi berean, ongizate-sistemen bideragarritasunari aktiboki laguntzea, biztanleriaren zahartzeari moduko erronkei behar bezalako erantzuna emanda.



- EB osoan Gizarte Elkarriketa sustatzea eskatzen dugu, hau da, gobernuen, enpresen eta sindikatuen arteko akordioak egituratzeko modua, aurrerapen ekonomiko eta kohesio sozialerako neurriak lortzeko.
- Enplegu-politiken eta ekonomia-, gizarte- eta hezkuntza-politiken arteko behar bezalako koordinazioa funtsezkoa da enplegu duina sustatzeko.
- Komunitate mailan lan-baldintza, gutxieneko soldata eta oinarritzko gizarte-estandarren araudia eskatzen dugu, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta txertatzea ere, Europako herritarrei bizitza duina bermatu eta, aldi berean, gizonek eta emakumeek eskubide sozial berdinak izatea bermatzeko. Araudi horrek subsidiaritate-printzipioa izan beharko du oinarri eta kontuan hartuko ditu Estatu kideen arteko bizitza-kostuen ezberdintasunak. Araudi horrek, halaber, gutxieneko soldata bat ezarriko du.
- Europa bezalako gizarte moderno batek langileen laneko osasuna eta segurtasuna zaindu behar ditu. Kalitatezko lanpostu bat ez da soldata hobia duen hori eta, beraz, gobernuak eta gizarte-eragileek lan-baldintzak elkarrekin hobetzen lan egiteko apustua egin behar dute.
- Ekonomia soziala sustatzearen alde egiten dugu, baita lan elkartuko ereduak, kooperatibismoa esaterako, sustatzearen alde ere, globalizazioaren ondorio negatiboak, besteak beste, aurre egiteko.
- Globalizazioaren Europako Fondoa aldatu eta prebentziorako aktibatzea proposatzen dugu, hau da, lan-kaleratzeak eta enpresen deslokalizazioak gertatu baino lehen; era berean, lan-elkartu eta kooperatibismo ereduak pribilegiatzea eta ekonomia soziala sustatzea proposatzen dugu.
- Gazteen mugikortasuna sustatzea helburu duten ekimenak itzulerari eta talentua erakartzeari zuzendutako politikekin osatu behar dugu, aldeketa demografikoaren eta lan-merkatuaren eraldaketan ondoriozko erronkei erantzuna emateko.
- Goi-hezkuntza eta lanbide-heziketako ikasleen mugikortasun-programak sustatzea, baita gazte profesionalena ere, funtsezkoa da gizarte kohesionatu eta inklusiboa lortzeko, europar balio komunak oinarri hartu eta kultura-aniztasuna bultzatu eta erradikalismoa eta bortizkeria prebenitzeko.
- Goi-mailako hezkuntza duala sustatzearen aldeko apustua egiten dugu unibertsitate eta lanbide-heziketako alorretan, gazteen langabeziari, esaterako, aurre egiteko. Europar Batasunak Estatu kideek osatutako espazio komunean eredu duala ezartzeko konpromisoa hartzea eskatzen dugu.
- Logika horren ildotik, mugaz gaindiko unibertsitate-kanpusen egituraketari bultzada ematea eskatzen dugu, egiazko Europako herritarrak



prestatzen laguntzen duelako.

- Administrazio-, hezkuntza-, zuzenbide-arrazoizko edo bestelako oztopoak kentzea, mugaz gaindiko lan-arroak eta langileen mugikortasuna errazteko eta aipatu arro horien ehun sozioekonomikoa suspertzen lagunduko duten aukera-eremuak sortzea ahalbidetzeko.
- Enpresen Gizarte Erantzukizuna hedatu eta sustatzeko dei egiten dugu, enpresek gizarteari itzul diezaioten gizarteak enpresei egindako ekarpena.
- Menpekotasun-tasa murriztu eta zahartze aktiboa sustatzeko zerbitzu eta ondasun berriak sortzeko aukera emango duten tresna europarrak lehenestea eskatzen dugu.
- Bizialdi osoko ikaskuntza eta herritarren trebakuntza digitala ezinbestekoak dira, EBk botere publikoei eskatu beharko lieke horiek ezartzea giza kapitala hobetzeko egiturazko erreformen parte gisa.
- EBk lidergoa berreskuratu eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen abangoardia izan behar du berriz, baita hori bete-betean politika eta maila guztietan ezartzen ere. Horrez gain, segregazio horizontal eta bertikalaren eta sexuaren araberako ordainsari- eta pentsio-ezberdintasunaren aurkako borrokan buru izan behar du berriz.

■ Eskubide Sozialen Europako Zutabeak proposamen zehatzak jorratu behar ditu honako alor hauei dagokienean: familiei eta haurtzaroari laguntza, jaiotza-tasa sustatzea, lan- eta familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egitea eta adineko pertsonen arreta, batez ere menpekotasun-egoeran daudenei.

■ Subsidiaritate- eta proportzionaltasun-printzipioekin bat etorruta, eskualdeko gobernuek hainbat tresnen kudeaketan parte hartzearen aldeko apustua egiten dugu, hala nola, Europako Gizarte Funtsean eta Gazte Bermean, estatuz azpiko mailetan aplikatzen baitira enplegu aktiborako politikak, gizarte-berrikuntza eta berdintasun-politikak barne. Funtz horrek lotura izan beharko luke lurraldearen espezializazio adimendunarekin.

■ Eskubide Sozialen Europako Zutabeak administrazio guztiak barne hartu behar ditu, bereziki, herritarrengandik gertuen daudenak, gizarte eta enpleguaren alorrean aurrera egin ahal izateko. Eskualdeko mailan egiten den lana EBrekin koordinatuta sustatzea proposatzen da, esaterako: lan-aktibazioa, aukerak sortzea, ekonomia sozialari, espiritu ekintzaileari eta ekonomia digitalari laguntza, emakume eta gizonen, eta horiek osatzen dituzten kolektibo guztiei, bidezko aukerak eskainiko dizkien lan-merkatu inklusiboa lortzea, kalitate handiagoko enplegua sortzea edo lan-munduratzearan ibilbide pertsonalizatuak proposatuko dituzten



enplegu-zerbitzu eraginkorrak garatzea.

- Europar Batasunak Bitartekaritza eta Justizia Leheneratzailerako hainbat teknika orokorrean ezartzea sustatu behar du, gatazkak baketu eta aldean interesak hobeto asebetetzeko.
- Beharrezkoa da Europa pluralago baten oinarriak ezartzea, kultura- eta hizkuntza-alorretan joera uniformatzaileetatik aldentuta. Europar Batasunak berrikuntza eta eskualdeen arteko lankidetzak kultura alor guztietan sustatu behar du, baita hizkuntza-aniztasuna eta hori sustatzean sortzen diren negozio-eredu berriak sustatu eta horiei prestigioa eman ere.
- Beharrezkoa da Europar Batasuna osatzen duten herrien kulturaren gaineko ezagutza bultzatzea, baita Europako hizkuntza minorizatu eta ez hegemonikoak

eta tokiko kirol tradizionalak babestea ere.

- Ezinbestekoa da kultura-ondarearen kudeaketa errazteko politika bateratuak aurrera eramatea.
- EBk jarduera fisikoa eta kirola bultzatzen laguntzeko politikak diseinatu behar ditu, horiek osasunarentzat dituzten onurez ohartzeko eta beste herrialdeetatik datozen pertsonen integrazio sozialerako eta kulturartekotasuna kudeatzeko modu gisa.

Europako erakundeei zutabe hori garatzeko bide-orri bat osatzea eskatzen diegu, eta benetako barne-merkatu bat lortzea eta behar bezalako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eskemak eta dumping soziala errotik kentzeko gutxieneko soldaten estandarrak eta lan-baldintzak bat etortzea. Neurri-sorta horrek, hazkunde iraunkorrerako politikekin batera, aurrerapen soziala eta kontu publikoen iraunkortasuna ahalbidetuko du.



2. EUROPA LEHIAKORRA

Industria-sektoreak eta horri lotutako zerbitzuek badute Europan iragana, oraina, eta etorkizuna ere izan behar dute. Hazkundeari, enpleguari eta berrikuntzari egiten dioten ekarpena funtsezkoa da, eta hala izaten jarraitu behar du. Hori dela eta, Europar Batasunak munduan industria-lidergoa sendotu nahi badu eta industriak BPGdari egiten dion ekarpenak % 20ra hazi behar badu 2020an, beharrezkoa du industria-politika sendoa edukitzea.

Europa liderra da munduan automobilgintza, aeronautika eta espazioa edo kimikaren sektore garrantzitsuetan. Hala ere, industriak komunitatearen BPGdari egiten dion ekarpenak behera egin du eta suspertzen ari diren herrialde deiturikoen hazkundeak Europako ekoizpen-ehunari presioa areagotu dio. Ondorioz, lehiakortasuna indartzeko erronkari egin behar dio aurre. Testuinguru horretan, eta hazkunde iraunkorra, kalitatezko enplegua sustatzeko eta erronka sozialei irtenbideak emateko helburuz, komunitateko erakundeek Europako industria-oinarri sendoa eta egonkorra bermatu behar dute. Halaber, beharrezkoa da industriari berrikuntza bere egin eta produktu komertzializagarriak sortzen laguntzeko politikak bultzatzea, heriotzaren harana deiturikoa gaindi dezaten, eta arreta berezia jartzea ETEen beharrazanei; azken horiek enpresen % 98 dira eta lanpostu berrien % 85 sortzen dute.

Industriari eta hari lotutako zerbitzuekin batera, EBk suspertzen ari diren edota enplegua sortzeko aukera handia duten sektoreak bultzatu behar ditu, esaterako, kultura- eta sorkuntza-industriak, agroindustria, bioekonomia, turismoa edo zerbitzuak.

Illo horretatik, Euskadik eskakizun eta ekarpen sorta bat egin nahi du, etorkizunean Europa lehiakorrago bat eraikitzen laguntzeko:

- EBk benetako industria-politika bat definitu behar du. Industria-lehiakortasunaren eta enplegu-sorreraren aldeko agenda bateratu bat abiarazteak ahalegin kolektiboari erantzun behar dio, eta bertan konpromisoa hartu behar dute Europar Batasunak, Estatu kideek eta estatuz azpiko eragileek eta, nola ez, industria-sektoreak berak.
- Aipatu industria-politika europarrak garai berri honek dakartzan erronkei egin beharko die aurre: eraldaketa ekonomikoen eta aurrerapen teknologikoen erritmoaren azkartzea (robotika, big data, adimen artifiziala, gauzen Internet, etab.), negozio-eredu berrien sorrera, tertziarizazioa, munduko balio-kateetan integrazioa, industria-sektorean emakumeen presentziaren areagotzea, etab.
- Industria-ehun europarra modernizatzeke azpiegituretan eta teknologia berrietan inbertsioak egin behar dira, eta hezkuntza- eta

prestakuntza-sistemak egoera berri horren eskakizunen arabera egokitu behar dira. Merkatu digital bakarra, energetikoa eta finantzarioak osatzen aurrera egitea beharrezkoa da.

■ Halaber, lanbide-heziketa eta unibertsitatea lotuta egon behar dira zientzia eta teknologia-sistemekin eta industriarekin. Europako programek bat egin behar dute beharrian horiekin eta sinergia horiek gauzatzeko aukera eman behar dute.

■ Industria lehiakorrago batek ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko apustu garbia egin behar du, industria-, ingurumen- eta gizarte-erronkei irtenbideak ematen lagun dezaketen punta-puntako teknologia laguntzeko. Egungo finantza- eta inbertsio-tresnak ez dira nahikoak erronka horiei aurre egiteko. Horri dagokionez, beharrezkoa da arriskuak deuseztatu eta aukera-hobietan inbertitzea sustatzeko finantziario-tresnak antolatzea; inbertsioak 4.0 industrian, ekonomia urdinean, bioekonomian edo biztanleriaren zahartzearen moduko erronka sozialei lotutako ekonomian egin behar dira.

■ Ezinezkoa da lehiatzea edo globalizazioaren, berrikuntzaren eta iraunkortasunaren erronkei isolatuta erantzuna ematea. Maila globalean lehiakorrak izateko gakoak lankidetzeta eta zubiak eraikitze gaitasuna dira, batez ere eskualdeko ekosistemen artean. Hortaz, klusterren politika

europarra aldarrikatzen dugu, balio-kate transeuroparrak sortu eta lurralde ezberdinetako enpresen arteko sektorearteko lankidetzeta errazteko, hala berrikuntza eta ETEen hazkundera suspertzeko.

■ Europako Batzordeak 2013az geroztik bultzatuta, eskualdeko agintaritzak espezializazio adimenduko estrategiak definitzen aritu dira. Beharrezkoa da, gure ustez, ikuspegi horretan sakontzen jarraitzea etorkizunean.

■ Edonola ere, eskualdearteko lankidetzeta funtsezko gakoa izan daiteke espezializazio adimenduneko estrategia horiek optimizatzeko, sinergiak sustatu eta berrikuntzan ahalegin globalaren errendimendua maximiza baititzake. Horregatik guztiagatik, Europar Batasunak Abangoardiako Ekimena moduko proiektuak indartzea proposatzen dugu. Proiektu horren kide sortzailea da Euskadi eta berau osatzen dute Europako 29 eskualdek, berrikuntzaren bidean ahaleginak zatitzea gaingitu eta elkarrekin merkatuan produktu eta zerbitzu berriak txertatzea azkartzeko aukera emango duten planta pilotuetan inbertitzea helburu.

■ Beharrezkoa da industria-modernizazio, energia, nekazaritzako elikagai eta zibersegurtasunaren alorrean espezializazio adimendunerako plataformak bultzatzea.

■ Premiazkoa da kontsumitzaileentzat zein



enpresa-sektorearentzat eskuragarri izango den benetako merkatu digital bakarra osatzea. Horretarako, beharrezkoa da azpiegitura teknologiko eta negozio digitaleko inkubagailuetan beharrezko inbertsioak lehenestea, baita datu-babesa, babes intelektualaren eskubideak eta zibersegurtasuneko gaiak lehenestea ere, enplegu-hobi berrietara iristeko nazioarteko dimentsioa eta prestakuntza digitalak ahaztu gabe.

- Beharrezkotzat dugu EBren inbertsio estrategikorako planak egokitzea, tamaina- eta arrisku-kategoria ezberdinei erantzungo dieten industria-izaera eta oso berritzaileak diren proiektuek beren lekua izan dezaten, negozio publiko-pribatuko ereduak indartuta.

- Halaber, EBren inbertsio estrategikorako planek lurraldearen lehiakortasuna indartuko duten proiektu estrategikoetan inbertitzeko eskualdeko hubak sortzea bultzatuko dute eta hori finantza-arriskua murrizteko tresnen bidez eta beharrezko laguntza teknikoaren bidez.

- Kultura- eta sormen-industriaren sektoreari laguntzeko Europa Sortzailea ekimena indartzea, kulturaren alderditik eta zinema eta ikus-entzunezko sektorearen laguntzatik.

- Turismo-sektorearen lehiakortasuna eta berrikuntza indartzen jarraitzea, baita turismo iraunkorra, arduratsua eta Europako ondare kultural eta naturalarekin errespetuzkoa dena indartzen jarraitu ere.



3. EUROPA EKONOMIKO-MONETARIOA

1999 urtean ezarri zenetik, Diru Bakarra proiektu monetarioa baino gehiago da, Europaren integrazio politikorako tresna da. Jakina zen Ekonomia eta Diru Batasuna ez zela eremu monetariorik onena (ez zuen zerga-sistema bateraturik, erakunde bateraturik, ezta lan-mugikortasun bateraturik ere) baina jasan dugun krisi ekonomiko eta finantzario sakonak gabezia guztiak azaleratu ditu.

Edonola ere, eta krisian zehar aurrerapenak egin badira ere arkitektura instituzionalean, eurogunearen gobernantzan edo praxi monetarioan, beharrezkoa da etorkizunera begira prezioen egonkortasunaz harago helburu zabalagoak lortuko dituen politika monetario bat garatzea.

Euroa jaio zenetik ez da bateratasunik gertatu hamabi herrialde sortzaile oparoen eta gutxien garatutakoen artean. Hala ere, hori ezin zaio euroaren arkitekturari bakarrik egotzi, aurrekontu-politika urritasunari baizik. Horregatik guztiagatik, bestelako neurriak behar dira, baita inbertsio publikorako programa esanguratsuak ere. Hori oinarri hartuta, egiturazko erreformekin batera –sozialki iraunkorrak, produktibitate handiagoa lortzeko beharrezkoak– errenta eta ongizatea bateragarri egitea lortzeko estimulu-politikak eskatzen ditugu.

Etorkizunean eta 2025era bidean, EDBk gehitu egin beharko lituzke, mailaz maila, honako neurri hauek, gobernantza, diru-batasuna eta ekonomia-batasunari dagokienean:

Gobernantzaren ikuspuntutik:

- “Europako herritarrekiko ardura hartuko duen” benetako “Europako Gobernua” nahi dugu. Beste era batera esanda, Europako Batzordeak honako hau behar luke:
 - Familia politiko bakoitzari dagozkion hautagai nagusien artean hautatutako presidente bat;
 - Euroaren zuzendaritza ekonomikoa eta EBZren funtzio instrumentala;
 - Zerga-jarrera bateratua zuzentarau ekonomikoetan, zerga-egonkortasunerako neurrien bitartez hedatzeko, eta ez soilik finantza-egonkortasunerako neurrien bitartez. Gobernua erantzukizunaren gailurrean egongo litzateke, eta politika ekonomikorako helburuak finkatuko lituzke Politika Ekonomikorako Orientazio Nagusien bitartez. Horiek ekonomia- eta aurrekontu-programaziorako benetako dokumentu bat osatu eta Parlamentuan onartuko litzateke. Kasu horretan, EBZren funtzioak berrikusi egin beharko lirateke, prezioen egonkortasuneko helburuak eta hazkundearen helburuak maila berean ipinita eta Parlamentuari



horren Batzorde Exekutiboa hautatzeko ahalmena emanda. EBren helburuak, finantza-egonkortasuna eta prezioen maila barne, politikaren eremukoak dira, eta ezin dira EBZren eskuetan utzi, Gobernuaren eskuetan baizik; horrek eman behar dizkie kontuak herritarrei.

- Europako Parlamentuak funtsezko funtzioa bete beharko luke eurogunearen erakunde eta organismoen funtzionamenduan eta erantzukizun demokratikoan. Europako Parlamentuak txertatu egin beharko lituzke, Itunei dagozkien berrikuspenen bitartez, kontrol-ekintza euroko Estatu kideetako ordezkarietara baino ez egokitzeko beharrezko bozketa-mekanismoak. Hortik hasita, posible izan beharko litzateke euroaren gobernu bat garatzea.
- Euroaren Ministro edo Europako Altxorraren figura sortzea, egun Eurotaldeko lehendakaritzak eta ekonomia- eta diru-komisarioak dituzten funtzioak bete ditzan.
- Zerga-paradisuen eta zerga-iruzurraren aurkako borrokaren aldeko konpromisoa indartzea, egite demokratikoaren paradigma gisa.

Diru Batasunari dagokionez:

- Banku Batasuna osatzea, Gordailuen Berme Funtse ezentzea barne.
- Eurogunearen Altxor bat sortzea, bono europarrak

pixkanaka igorrita, interes komuneko eta balio erantsi handiko proiektu europarretan inbertitzeko aukera emateko.

Ekonomia Batasunari dagokionez:

- Eurogunearen berezko aurrekontu nahikoa ezartzea, antiziklikoa, ekonomia- eta gizarte-bateratzea suspertzeko.

EBko finantzen etorkizunari buruz Batzordeak osatutako hausnarketa-dokumentuak eztabaidaren erdigunean jartzen du balio erantsi europarraren gaia. Bi ideietan laburbiltzen da: Itunean ezarritako helburuak lortzea eta "dimentsio europarreko ondasun publikoak aurreikusi edo gure funtsezko askatasunak, merkatu bakarra edo Ekonomia eta Diru Batasuna defendatzen lagunduko duen aurrekontu bat" lortzea.

Balio erantsi europarraren kontzeptuak "bidezko itzulkinaren" logika hausten lagun dezake; horixe izan da Urte Anitzeko Finantza Markoen negoziazioetan zuzendu duena. Europako aurrekontuak balio erantsia eman behar die Europako balio bateratuen defentsari: demokrazia, askatasuna, Zuzenbide Estatuak, funtsezko eskubideak, berdintasuna, elkartasuna, iraunkortasuna eta bakea.

Euskadik honako neurri hauek proposatzen ditu Batasunaren aurrekontuari dagokionez:

- Batasunaren aurrekontua hogeita zazpi BPGdaren



% 2an kokatzea, Erresuma Batua EBetik ateratakoan eta subsidiaritate-irizpidea zorrotz aplikatuta. Europar Batasunarentzat estrategikoak diren proiektuetan inbertitzeko ahalmena duen aurrekontua, ondorio birbanatzaileak izateko zuzendutako politikei eutsiko diena.

■ Europako Batzordearekin bat egiten dugu hausnarketan: hazkundera finantza-transakzioen eta CO2 isuriaren gaineko ingurumen-tasen gaineko zergen bidez finantza daiteke. Horrez gain, EBZren irabaziek ere lagun dezakete finantziazio horretan.

■ Aurrekontua berezko baliabideetan oinarritu beharko litzateke gehiago, estatuen ekarpenetan baino. Horretarako, Berezko Baliabideei buruzko Erabaki berri bat onartzea eskatzen dugu, eta horien proportzioa areagotzea Batasunaren baliabide orokorretan.

■ EBk berriki egindako hausnarketa-dokumentuek aditzera ematen duten moduan, beharrezkoa da egonkortze-funtzio motaren bat txertatzea, eta iker daiteke “inbertsio publikoa babestea, atzeraldi ekonomikoari aurre egiteko eta langabezia-asegururako erregimena, berau bat-batean hazten bada”. Ildo horretatik, zerga-politikaren alorrean egonkortze automatikorako osagai bat gehitzearen aldeko apustua egiten da, langabeziaren bilakaerari lotutako mekanismoen eta Eskualde Egonkortzerako Fondo

baten bitartez.

■ Langabeziaren bilakaerari lotutako mekanismo modura, Diru Sarrerak Bermatzeko Europako Errentaren aldeko apustua egiten da, erosteko ahalmenaren parekotasun-irizpideen arabera bateratuta.

■ Eskualde Egonkortzerako Fondoari dagokionez, denboraldi baterako izaera izango luke eta EBk bere eskumenez kudeatuko luke, eskualdeen doikuntzari laguntzeko pizgarri gisa.

■ Horrez gain, beharrezkoa da EBren barruan merkataritza- eta finantza-fluxuen oreka sustatzeko politika eta erakundeak garatzea, hala EBren baitan superabit eta defizit kronikoak arindu eta migrazio ekonomikoak eta gogoz kontrako azpienpleguak ekiditeko.

■ Interes orokorrek inbertsioan egiteko nahikoa izango diren aurrekontu-sailak esleitzea – austeritate-politikak gainditzeko –, produktibitate handiagoa bilatzeko zuzendutako balizko egiturazko erreformak egokitzeko aukera emateko.

■ Diru-laguntzen figurari eustea eta, aldi berean, Kohesioa bezalako hainbat politikan finantza-tresnen erabilerari mugak ezartzea.

■ Egonkortasunerako Europako Mekanismoa Europako



Batzordearen menpeko tresna bilakatzeko bidean jartzea, eta horren finantza-gaitasuna 500.000 milioi eurokoa izatea. Fondo berri horrek larrialdietarako jarduerak egiteko aukera emango luke, finantza-krisi berriak gertatuko balira.

■ Seihileko europarrean egindako kontrol makroekonomikoak eta Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itun berriaren arauak (Two-Pax eta Six-pax) Estatu kide bakoitzaren berezko egoeretara egokitzea.

■ Euskadik (eta Nafarroak) berezko ogasunak dituzte eta Europako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak abala emandako zerga-burujabetza; testuinguru horretan, konpromisoak eta egikaritzeak kontuan hartzea eskatzen dugu, Estatu kideen balizko ez-betetzeak ebaluatu eta, hala badagokio, zigorrak ezartzen direnean.

■ Kapital-merkatuaren batasuna sustatzea, benetako politika ekonomiko partekatua ahalbidetzeko.

Bere aldetik, Kohesio Politikak Itunaren 174. artikulua helburuak bete ditzan:

■ EBk nabarmen handitu beharko lituzke finantza-hornidurak, kohesio-politikak tresna kontra-zikliko gisa eragin dezan, esaterako, erresilientziarako gaitasun txikiagoa duten eskualdeetan inbertsio publikorako gutxieneko

mailak bermatuta.

■ EBk generoa barne hartzen duten aurrekontuak sustatu beharko lituzke, eta egiazko Europa Soziala zehazten lagundu beharko luke, bizitza duina bermatuko duten izaera sozialeko oinarritzko estandar europar batzuk ziurtatzeko baliabideak emanda.

■ Beharrezkoa da eskualdeei protagonismo handiagoa ematea, 2021-2027 Europako estrategiaren irismen eta edukiaren definizioari dagokionez, baita Europako Seihilekoaren bitartez berau ikuskatu eta aplikatzeari dagokionez ere. Prozesu horretan, eskualdeen arteko lankidetzaz ezinbestekoa da Europako Batzordeak herrialdeko berariazko aholkuetan ezarritako helburuak lortzeko;

■ Globalizazioaren irabaziak pertsonen eta lurraldeen artean modu desberdinean banatuta daudenez, beharrezkoa da globalizazioak eragindako eraldaketa ekonomikoa eta aldaketa teknologikoa egokitzea, pertsona eta eskualde guztiek lagun dezaten barne-merkatuan eta haren irabaziak ere jaso ditzaten.

■ Lurralde-lankidetzarako programen balio erantsi europarra eta egituratzeko ahalmena eztaba daezinak dira; mugaz gaindiko proiektuak, proiektu transnazionalak eta eskualdeartekoak finantzatzeko dituzte, eta beste modu batera zaila



litzateke aurrera eramatea.

Azkenik, eta Europako Batzordeak Nekazaritza Politika Bateratua modernizatu eta sinplifikatzeko prestatzen ari den lege-proposamena kontuan hartuta, honako hau da Euskadiren apustua:

- Egungo bi oinarriei eustea –EBren zuzeneko laguntzak eta EBren eta Euskadiren artean finantzatutako landa-garapenerako politika– eta Bruselak finantzatutako hirugarren oinarri bat

sortzea, merkatuetan gerta daitezkeen krisientzako laguntza-mekanismo gisa.

- NPB eskualdeek kudeatzeko arauen subsidiaritate eta malgutasun handiagoa, bakoitzaren berezitasunek lekua izan dezaten.
- Etengabeko erreformen arabera izango ez den NPB eskema bat, ustiapenen belaunaldi-aldaketan eta oinarri egonkor batetik abiatuta nekazari gazteak gehitzen laguntzeko.



4. EUROPA IREKI ETA SOLIDARIOA

Batasun politikoaz eta merkatu bakarraz harago, Europar Batasuna balio-komunitatea ere bada. Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutunak Europako herritarrei bermatzen dizkie beren oinarritzko eskubide eta askatasunak.

Lisboako Itunak EBren oinarritzko baliotzat biltzen ditu giza duintasunarekiko errespetua, askatasuna, demokrazia, berdintasuna eta giza eskubideak eta Batasunaren xedea bertako herrien bakea eta ongizatea sustatzea dela ezartzen du. Printzipio horiek lotesleak dira eta Estatu kideek zaintzeko betebeharra dute.

Balio europar horiek sustatzea ez da EBko kideetara mugatzen. Kanpo- eta segurtasun-politika bateratuari dagokionez ere, EBk demokrazia eta Zuzenbide Estatua garatu eta indartzea eta oinarritzko giza eskubideen eta askatasunen errespetua du helburu.

Era berean, elkartasuna eta garapenerako lankidetzak EBk kanpo-politikan sustatzen dituen funtsezko dimentsioak dira, Europa ireki, solidario eta iraunkorra indartzeko, herritarren beharrianetara gehiago hurbiltzeko eta erronka globalei erantzuna ematen saiatzeko.

Europar Batasuna munduko hiru ekonomia handien artean dago, lur planetako herrialde gehien merkataritza- eta inbertsio-kide nagusia da eta garapenaren lankidetzari mundu mailan gehien

eskatzeko diona da. Hori hala baldin bada ere, EBk nazioartean izan duen funtzioa ez da behar bezalakoa izan.

Etorkizunari begira eta erronka eta mehatxu globalak areagotzen ari diren honetan, nekez ehundutako nazioarteko adostasunak zalantzan jarri eta protekzionismoa eta babesa behar duten pertsonei mugak ixtea eskatzen duten ahotsak azaleratzen hasten direnean, EBk bete-betea hartu behar du bere erantzukizuna gobernantza globalean.

Illo horretatik, honako hau defendatzen dugu:

- Aldeaniztasunean konprometitutako Europar Batasuna, akordio bateratuen bidez ezarritako arauetan oinarritutako ordena mundial berri bateranzko bidean buru izango dena, giza eskubideak, garapen iraunkorra eta ondare komun unibertsalaren eskuragarritasuna bermatuko dituen.
- EB ireki bat, erronka globalei erantzuna emateko gai dena, eta giza eskubideen, klima-aldaketaren eta giza garapen iraunkorraren alorretan lortutako nazioarteko adostasunak errespetatuko dituen. EBk globalizazioa modu etikoan ezartzen duen indar-ereduari erantzun behar dio, eta elkartasuna eta giza garapen iraunkorra batu.
- Nazioarteko gizartearen benetan eragiteko gaitasuna duen eragile izanik, Europar Batasunak funtzio



egonkortzailea behar du izan, ondare komun mundialak eskuratzen eta gatazken funtsezko arrazoiak eragozten lagundu behar du; demokrazia, Zuzenbide Estatua, giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua eta eskualde-integrazioa munduko beste eremuetan sustatu behar ditu.

■ EBk konpromisoa hartu behar du emakumeen eta gizonen berdintasunean, baita emakumeen aurkako bortizkeria errotik kentzeko prebentzioan ere; arazo unibertsala da, egiturazkoa eta dimentsio anitzetakoa, eta kostu pertsonal, sozial eta ekonomiko zenbatezinak eragiten ditu.

■ Europa elkartrukeari eta merkataritzari ireki behar zaio. Protekzionismoa itzultzea eskatzen ari diren ahotsen aurrean, Europako Batzordeak datozen urteetarako iragarritako merkataritza-agenda babesten dugu. Edonola ere, hirugarren herrialdeekin berau negoziatu eta ondoren ezartzean, hainbat eskakizun egin nahi ditugu: Europako industriaren – eta bereziki ETEen– lehiakortasuna eta enplegua sortzeko gaitasuna sustatzea, behar bezalako elkarrekikotasuna bermatzea, eta gizarte- eta lan-eskubideei, kontsumitzaileen eskubideei, ingurumenaren babesari, jabetza intelektual, datu eta kultura-aniztasunaren babesari dagokienez Europako estandarrei eutsi eta horiek indartzea. EBk dumping soziala eta deslokalizazioak ekidin behar ditu, eta bertako merkataritza- eta inbertsio-akordioetan izaera publikoko inbertsio-auzitegien sistemak

txertatu.

■ Europako Batzordeak eta EBren Kontseiluak gardentasunez jokatu behar dute, abian diren hainbat merkataritza-negoziazioren negoziazio-mandatuari eta bilakaerari dagokienez.

■ Garapenerako lankidetzarako ahalegina bikoiztea, agindu etikoagatik, baita txirotasun eta desberdintasunaren aurka egitea segurtasun- eta egonkortasun-faktorea dela sinesteagatik ere.

■ Deszentralizatutako lankidetzari laguntzeko tresnak indartzea, Europako gizarte zibilaren ahalmena mugiarazi eta errealitate urrunekin lotura izateko aukera ematen baitute.

■ Europako Batzordeak eskualdeen ahalmena baliatu behar du EBren kanpo-proiektzioan, eta lotu egin behar ditu eskualdeak hainbat alorretan, esaterako, diplomazia ekonomikoan, kulturalen, klimatikoan edo energetikoan.

■ EBk lurralde-ikuspegia pribilegiatzen duten eta Agenda 2030ekin Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH) lortzeko konpromisoa duten ereduak sustatu behar ditu. Beharrezkotzat jotzen dugu GIH abiarazteko ekimenak toki eta eskualdeko agintaritzetara eta gizarte zibileria hedatzea, politika publikoen koherentzia handiagoari lagundu eta maila anitzeko egiazko gobernantza ezartzeko.



- Europar Batasunak Europako herritarren segurtasuna bermatu behar du, barne- eta kanpo-segurtasunak lotura dutela abiapuntu hartuta. Ildo horretatik, Europako polizia ezberdinen arteko koordinazioaren garrantzia azpimarratu behar da, bereziki erlijio arrazoizko nazioarteko terrorismoaren prebentzioari dagokionez. Garrantzia du ere egitura terroristei aurre egiteko, horien hornidura- eta finantziazio-bitartekoak indargabetzeko eta horren instrumentalizazio propagandistikoa ekiditeko. Polizia-jarduerarekin batera, beharrezkoa da kohesio eta integrazio sozialerako politikak eta erlijio- eta kultura-aniztasunerako politikak bateratzea, baita erradikalizazioari aurre egiteko gizarte- eta hezkuntza-prebentziorako estrategiak eta jardunbide egokiak bateratzea ere.
- Europako Inteligentzia Zerbitzu bat sortzea, prebentzio eta segurtasunerako datu esanguratsuak EBn maila anitzeko ikuspegitik lanean diharduten inteligentzia-talde guztiek berehala kontsultatzeko aukera emango duena.
- Segurtasuna defentsa soilaz harago doa eta, ildo horretatik, ezinbestekoa izango da Europako segurtasun-politika ikuspegi globaletik jorratzea. Edonola ere, defentsa alorrean EBn dauden gaitasunak bateratu egin behar dira.
- Defentsan egindako gastu publikoaren ondorioz
- Europaren dimentsio sozialari edo garapenerako lankidetzarako politikei eragiten dien baliabideak ez murriztea bermatzea.
- Europako Batzordearen Presidenteak iragarritako Zibersegurtasunerako Europako Agentzia eratzea eta, aldi berean, EBean barna abian jartzen ari diren zibersegurtasunerako agentzia eta zentro publiko zein pribatuekin elkarlana eta sinergia-bilaketa pribilegiatzea.
- EB gotorlekua alde batera utzi eta harreran hartzen duen Europar Batasuna. Txirotasunetik, gerretatik, jazarpenetik edo giza eskubideen uraketetatik ihes egin eta babes bila datozen pertsonen oinarritzko eskubideak bermatu behar ditu.
- Errefuxiatuen krisiari eta legez kanpoko immigrazioari eman beharreko erantzunak jarduera integrala eskatzen du, errealitate horien dimentsio anitzak jorratzea, alegia: jatorrizko eta igarotzeko herrialdeetan mehatxu eta muturreko txirotasun-egoerak, mafien aurkako borroka, mugako kontrolak, harrera-baldintzak, etab.
- Lege-marko bat ezartzea, EBn nazioarteko babesa behar duten pertsonak iraunkorki berkokatzeko aukera eman dezan, eta arreta berezia jarriko zaie kolektibo zaurgarrienei, bakarrik dauden adin txikikoei, esaterako.



- Nazioarteko babesa behar duten pertsonak Europa bide seguru eta eskuragarrietatik iristea ahalbidetuko duten formula berritzaileak bilatzea, esaterako, familia-bateratze zabaldua, giza-korridoreak edo komunitate-babeserako programak abiaraztea.



5. EUROPA IRAUNKORRA

Iraunkortasun kontzeptuak hainbat dimentsio barne hartzen ditu, ingurumenetik hasi eta ekonomia eta gizarteraino, eta horiek denak lotuta daude. Hori dela eta, Europa iraunkorra lortzeko ingurumenean eta klima-aldaketa-aren aurkako borrokan aurrera egin behar da, eta horrek zuzeneko lotura du ekonomia-, ekoizpen- eta energia-ereduarekin edo garraio- eta mugikortasun-dinamikekin, natura-ingurunearen babesarekin edo Europa bezalako zahartutako gizartearen iraunkortasunarekin.

Belaunaldi guztiek dute ingurumen garbi eta osasuntsua izateko eskubidea eta, hortaz, EBk ingurumen-iraunkortasunean eta klima-aldaketa-aren aurkako borrokan buru izaten jarraitu behar du. Eztabaida globalaren eta Parisko Alderdien Konferentzian lortutako Akordioaren baitan, EBren klima- eta energia-markoaren oinarritzko helburuek ezartzen dute berotegi-efektuko gas-isurketak % 40 murriztea, energia berriztagarrien kuotaren % 27 gutxienez lortzea eta energia-eraginkortasuna gutxienez % 27 hobetzea.

Hartutako klima-konpromisoen ondorioz karbono urriko ekonomiaranzko bidean teknologia garbien eskaera handitzen ari da eta horrek Europako ekonomia modernizatu eta hazkundera eta enplegua sortzeko aukerak ematen dizkigu. Halaber, 2015eko abenduan Europako Batzordeak neurri-sorta berria onartu zuen

Europako enpresa eta kontsumitzaileei baliabide guztiak modu iraunkorrarekin erabiltzeko ekonomia zirkular baterantz egin dezaten laguntzeko. Proposamenek produktuaren bizitza-ziklo osoa barne hartzen dute: ekoizpenetik hasi eta kontsumora arte, hondakinen kudeaketa eta bigarren mailako lehengaien merkatua barne. Ekonomia zirkularrak lanpostu ugari sor ditzake, produktu eta zerbitzu berritzaile eta kalitatezkoak sortu eta, aldi berean, balio handiko eta gero eta gutxiago ditugun baliabideak mantentzen dira, horren erabileraren ingurumen-eragina murrizten da eta hondakin-produktuari balio berria ematen zaio.

EBk iraunkortasunerantz egiteko, Eusko Jaurlaritzak honako iritzi hau du:

- EBk klima-aldaketa-aren aurkako borrokan mundu mailako buru behar du izan, klima-aldaketa arintzeko lan egin behar du eta horren ondorioetara egokitu beharko da. Gai horretan hartutako nazioarteko konpromisoak zorrotz betetzearen aldeko apustua egiten dugu.
- Beharrezkoa da Parisko Akordioaren konpromisoak eta 2030erako EBren helburuak beteko dituen klima-politika bat, berotegi-efektuko isuriak murriztea ardatz izango duena, eta parekotasun-, elkartasun- eta errentagarritasun-printzipioak islatuko dituen.
- Ezinbestekoa da karbono-isuri baxuko eredu



- sozioekonomikoa bultzatzea, klima-aldaketaren aurrean gure ahultasuna arindu dezan eta gure enpresen, bereziki ETEen, lehiakortasuna maximiza dezan, baliabideen erabilera eraginkorraren bitartez.
- Ekoizpen- eta kontsumo-eredu berritzaile eta eraginkorrak indartuko dituen pizgarri-politika bat eskatzen diogu Europari. Ildo horretatik, EBk eko-diseinuari eta fabrikazio gehigarrian eta bestelako industria-prozesuetan materialen murrizketa eta berrerabilpenari zuzendutako finantziazio-tresnak pribilegiatu behar ditu.
 - Beharrezkoa da Inbertsio Estrategikoen Europako Plana ekonomia urdinaren eta karbono baxuko ekonomiaren sektoreetara egokitzea. Diru-laguntzak eta finantziazio-tresnak eta BEIk egun eskatzen dituen inbertsioak baino baxuagoko tamainetara egokitutako bermeak bat etorrira, eskualde dimentsioako proiektu pilotuak egia bihurtzen lagun daiteke. Ingurumen-erronkak mugez harago doaz eta lankidetzeta-maila zabala eskatzen dute, Europako eta nazioarteko erabakiak hartzeko prozesuetan hizketakide gutzien esku-hartzea ahalbidetzeko.
 - Premiazkoa da EBN Energiaren Batasun sendo bat sortzea. Energia-batasun horrek iraunkorra, malgua eta eraginkorra behar du izan eta horren helburua izango da energia-segurtasuna lortzea, eskualde-lankidetzaren eta energia-iturrien dibertsifikazioaren bitartez.
 - Era berean, Estatu kideen arteko energia-prezioak homogeneizatzeko neurriak ezarri behar dira, tarifa-ezberdintasunak ez daitezen izan lehia desitxuratzeko elementu izan.
 - Energia-loturak bereziki herrialde periferikoetan sustatzea, baita EBk 2020rako ezarritako gutxieneko lotura-mailen azpitik dauden herrialdeetan ere.
 - EBk baditu nazioarteko abangoardian kokatzeko aktiboak, itsasoko energia berriztagarrien, baterien eta gordetzeko bestelako teknologien berrikuntzan. Horretarako, alor horietan inbertsioak indartu behar dira, eta funtsezkoa da Europako eskualdetan eskuragarri dauden demostrazioko azpiegitura-sarea lotzea.
 - Europako programa eta ekimenek, bereziki inbertsioa, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea helburu dutenek, energia-eraginkortasunarekin eta energia berriztagarriekin lotutako proiektuak lehenetsi behar lituzkete.
 - Energiaren alorrean espezializatutako lurraldeen arteko eskualdearteko lankidetzeta indartu behar da, hainbat jardueren inguruan balio-kateak sortzeko: ekipamendu-ondasunen fabrikazioa, energia-azpiegiturak instalatu eta mantentzeko zerbitzuak edo energia berriztagarrien ekoizpena, garraioa eta banaketa. Ildo horretatik, EBri



eskualdearteko lankidetzari gehiago egokitzen den arau- eta finantza-marko bat ezartzea eskatzen diogu, egun abian diren proiektuek azken bultzada jaso dezaten.

- Errepide bidezko garraioari alternatiba gisa eta garraioaren sektorearen isuriak murrizte aldera, ezinbestekoa da tren-garraioaren sare transeuoparra amaitzea, bereziki falta diren Estatu kideen arteko abiadura handiko loturak. Korridore atlantikoan kokatuta, mugaz gaindiko zatiak egitea eta tren-korridoreetara merkantzia eta bidaiarien sarrera eta irteeren logistika- eta hiri-nodoak indartzea eskatzen dugu.
- EBren mugikortasun iraunkorrerako politika berrien ildotik, mugikortasun elektrikoa, bereziki hiri-inguruneetan, pribilegiatzen dituzten proiektu pilotuak bultzatzea.

- Europako hiriek ad-hoc funtsak jaso behar dituzte, tarifa-diseinu eta operadoreen koordinaziorako elementu bateratu guztiak barne hartu, zerbitzuaren eskaintza bermatu, horien ekonomia- eta teknologia-lankidetzarako mekanismoak proposatu eta ingurumenarekiko iraunkorrakoak eta energia garbietan oinarritutako garraio-moduak sustatuko dituen mugikortasun-estrategia bat ezartzeko.
- Europako lehen sektoreari laguntza ematen jarraitu behar da, natura-ingurunea babesten duen eraginagatik, baita enplegu eta jarduera ekonomikoaren ikuspuntutik ere. Ildo horretatik, Europako nekazaritza- eta arrantza-sektoreak ekoizpen ekologiko eta iraunkorreko eredueta jotzea sustatzea proposatzen da, baita akuikultura eta elikagaien ekoizpen iraunkor eta segurua sustatzea ere.



6. EUROPA POLITIKOA

Europar Batasuna eraldaketa politiko betean dago, eta austeritatearen paradigma gainditu nahi du. Europa demokratikoagoa lortzea, herritarrengandik gertuago egongo dena, Jean-Claude Juncker buru duen Batzordearen 10 lehentasunetako bat da. 27en Europa berri bat eratuko da 2019ko martxoaren 30ean eta 2019ko ekaineko Europako Parlamentuko hauteskundeetan ostean. Batzordeak Batasun bateratuago, indartsuago eta demokratikoagoa baten aldeko bide-orrria aurkeztu du eta 2018an aurkeztuko ditu EBko hauteskundeetarako, Europako Fiskaltzarako, Europako Kontseiluaren Lehendakaritzarako eta Batzorderako zerrenda transnationalei buruzko proposamenak, EBren zilegitasun bikoitza islatzeko, baita subsidiaritate- eta proportzionaltasun-printzipioak indartu eta legealdia hobetzeko ideiak ere.

Ez dago zalantzarik Europar Batasunak aurrera egin duela sorrerako Itunetatik Lisboako Itunera bitarte, “eskualdekiko itsutasuna” deitu zitzaion jarreratik eskualdeak gero eta gehiago aintzat hartzera arte. Hala, Estatu kideen erakunde-autonomiaren printzipioa errespetatuz, eskualdeei aitortzen zaie EBren Ministro Kontseiluetan parte-hartze zuzena izatea, Europako Parlamenturako hauteskundeetan estatu azpiko barrutiak izatea eta subsidiaritate- eta proportzionaltasun-printzipioen aplikazioan dimentsioa deszentralizatua. Halaber, 1994an Eskualdeetako Lantaldea sortu zen, komunitatearen erabakiak

hartzeko prozesuan eskualdeko eta tokiko eragileek ordezkaturiko aholkularitza-izaerako eta erabaki loteslerik gabeko organoa.

Hala bada ere, lortutako egoera ez da behar bezalakoa eta Europaren eraikuntzan maila anitzeko gobernantza eraginkorra eta estatuz azpiko gobernuen benetako parte-hartzea jorratzeke dagoen gaia da. Horren adierazgarri da Europako Batzordeak Europaren etorkizunari buruz 2017ko martxoan argitaratutako Liburu Zurian Eskualdeei egiten zaien erreferentzia falta. Estatuak hizketakide bakar gisa eta EBren erabakiak hartzeko prozesuan esku hartzeko subjektu legitimo gisa duten ikuspegi hegemonikoa azaleratzen du. Hona iritsita, ezinbestekoa da gogoraraztea “eskualde” hitzak barne hartzen dituen errealitateen heterogeneotasuna; errealitate batzuk administrazio-deszentralizazio bati baino ez diote erantzuten eta beste batzuk lege-eskumenak izan edota errealitate nazional ez-estatalak ordezkatzeko dituzte.

Edonola ere, polizentrismoa eta interdependentzia gero eta nabariago dituen egoera global batean, maila anitzeko gobernantza gero eta gehiago eskatzen denean, funtsezko deritzogu eskualdeek, eta bereziki *Eskualde Konstituzional* dei ditzakegun horiek – lege-eskumenak eduki eta Estaturik gabeko errealitate nazionalak ordezkatzeko dituztenak – Batasunaren etorkizuneko gobernantzan esku hartzea. Horrek ez du integrazio-prozesuari zilegitasun handiagoa emateko



helburu bakarra; politika publiko bateratuak garatzerakoan eraginkortasun- eta koherentzia-maila handiagoa lortzen laguntzen du.

Bestalde, eraikuntza politiko konplexu orotan gertatzen den moduan, EB arautzen duten Itunetan dimentsio konstituzionalik ez egoteak zail egiten du aintzat hartzea eta lekua ematea berau osatzen duten herri eta estaturik gabeko nazioei. Modu desberdinean hartzen dira aintzat Estatu kideetan, ez dute estatuz gaindi nahikoa aintzatespen jasotzen, EBren politiken inplementazio-funtziotik harago. Hortaz, Eskualde Konstituzional horiek beren barne-antolamenduetan aitortuta dituzten ahalmenak desitxuratu egiten dira, erabakitzeke eremua Europara EBren erakundeetan parte hartzeko behar bezalako bitartekorik gabe iristen baita eta, hala, eskualdearen subiranotasuna murriztu egiten da.

Populismoen gorakadak, hainbat arrazoi eta kausen artean, zerikusi handia du herritarrek botere urrun eta zentralizatzaileek gobernatzen dituzten sinesmenarekin, izan Estatu kideak edo Europar Batasuna. Horren aurrean, Eskualde Konstituzionalek herritarren, eragile ekonomikoen eta gizarte zibilaren ahalmen eraldatzailearen katalizatzaile-lanak egiten dituzte; eta horiek dira Europaren “demos” kontzeptuaren barruko mamia.

Hori dela eta, Euskadik estaturik gabeko herri eta nazioek Batasunaren gobernantzan esku hartzeko

ereduari buruzko elkarrizketari ekitea proposatzen du; herri eta nazio horiek historikoki adierazi izan dute autogobernarako asmoa eta, aldi berean, Europako integrazioarekin dute konpromisoa. Batasunak parte hartzeko moduak eskaini beharko lizkieke Eskualde Konstituzionalei, Maastrichteko Itunetik indarrean dauden eskemak gainditu ahal izateko. Bide eta erantzun horiek irizpide pragmatikoak izan beharko lituzkete oinarri, Eskualde Konstituzionalen arteko asimetriak kontuan hartu eta, azkenik, eskualdeetako buruak Bruselara bertaratzea sustatu, eztabaidatu, erabaki eta konpromisoak hartzeko behar bezala ahaldunduta.

Ildo horretatik, Euskadik beharrezkotzat du Eskualde Konstituzionalak txertatuko dituen EBren erakunde-eredurantz egitea, eraldaketa politikorako eragile gisa ahaldunduta. Eredu berri horrek maila anitzeko gobernantza bermatuko luke, Eskualde Konstituzionalek EBren integrazio-prozesuan erantzunkidetasuna bere gain hartuko bailukete; aldi berean, subsidiaritate- eta proportzionaltasun-printzipioen dimentsio deszentralizatzailea behar bezala aplikatzeko bermatuko luke.

Testuinguru horretan, Euskadik hainbat proposamen luzatzen ditu, Europaren etorkizunari buruzko eztabaidari, baita Task Force-en lanari edo *Subsidiaritate eta Proportzionaltasunari buruzko Talde Eragileari* edo Europako erakundeek abiarazitako bestelako



eztabaida-bitartekori ekarpen eraikitzailea egiteko asmoz.

Ikuspegi orokorretik, hemen gure proposamena:

- Europako Batzordearen Presidentzia Europako Parlamentuak (*Spitzenkandidaten*) Europako hauteskundeetara aurkeztutako talde politikoetako hautagaien artean hautatzea.
- Europako Komisario kopurua nabarmen murriztea, eta eraginkortasun-parametroen arabera izendatzea, ez nazionalitate-irizpideen arabera.
- Europako Parlamenturako hauteskundeetan, zerrenda bakar transnazonaletara pixkananako aldaketa egitea, estatu- eta eskualde-barrutiak ordezkatzuz.
- Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua bermatzeko neurriak ezartzea ordezkaritza politikoko postu eta organoetan.
- Kontseiluan unanimitatea deuseztatzea.
- Europako Parlamentuak gai guztietan erabaki partekatua hartzea (zerga-sistema barne).
- Europako Parlamenturako hauteskundeak egun berean egitea Europar Batasun osoan.

■ Lege-ekimenerako ahalmena Kontseiluari eta Europako Parlamentuari zabaltzea.

■ Ganbera bat edo, subsidiarioki, berariazko batzorde bat ezartzea euroguneko europarlamentarientzat.

Maila anitzeko gobernantzaren ikuspuntutik, honako hau proposatzen dugu:

- Maila anitzeko gobernantzari buruzko konbentzio bat eratzea, bere garaian egindako lanak Europako Konbentzioaren subsidiaritateari buruzko lan-taldean berriz jorratzeko, bereziki, Lamassoure-ek Eskualde Elkartuaren figurari buruz egindako lana. Eskualde Konstituzionalek EBren Eskualde Elkartu estatusa lortzeak eskainiko lukeen birtualtasuna aztertzea proposatzen dugu.
- Halaber, Eskualde Konstituzionalek parte hartzeko erakunde bat sortzeko aukera aztertzea ere eskatzen dugu, susta dezan Eskualdeek EBren benetako subjektu aktiboa izatea, komunitatearen politikak diseinatzen eta erabakiak hartzeko prozesuetan bete-betean parte hartu dezaten (dituzten eskumenen baitan).
- Eskualdeen Europako Batzordea erreformatzea, erakunde-kategoria emateko, kontsultara deitutako gaiak zabaltzea, hainbat gaitan irizpeetarako indar loteslea ematea eta horren osaeraren heterogeneotasuna behar bezala jorratzea.



■ Eskualde Konstituzionalei zilegitasun aktiboa aitortzea, Justizia Auzitegian erakundeen jarduera orokorre helegiteak egiteko.

■ Eskualde Konstituzionalek lege-ekimenetarako ahalmena izatea, horien heren batek ekimen bat adosten badu.

■ Egitura konplexuko Estatu kideek edo Estatu kide federalek bermatu egin beharko lukete bere Eskualde Konstituzionalek beren eskumenei eragiten dieten formazioetan asmo-formaziorako eta presentzia zuzeneko barne-sistema eraginkorraren bitartez parte hartzea.

■ EBren araudiari Argitasun Zuzentzari bat gehitu behar zaio, legezko bideak egokitu ditzan EBko Estatu kide bati dagokionez bere subiranotasun, ko-subiranotasun edo interdependentsia-estatusari buruz erabakitzeko asmoa autogobernarako parlamentu-erakunde bidez argi eta garbi adierazi duten Komunitate politikoentzat, baita, hala badagokio, EBren parte izateari buruz ere Estatu kideak EBren parte izateari uztea erabakitzen badu, ahal izan dezaten lege eta parte hartzen duten Estatuarekin adostuta eta haren bermeekin herritarrei bere etorkizunari buruz galdetu”.

■ Prozedura sinplifikatu bat prestatzea, berma dezan balizko sezesio-prozesu baten ondorioz –aipatu Argitasun Zuzentzarauean aurreikusitako bideen

arabera eginda– sor daitekeen Estatu berri bat Batasunean gelditzea, Estatu berriak EBren parte izateko asmoa adierazten badu, betiere.

Herritar aktiboak sustatzea funtsezkoa da EBren protagonismo politiko eta erabakitzailea Europa osatzen duten herri eta nazioekin partekatua izateko. Batasun demokratikoago batek balioetan hezitako herritarrak eskatzen ditu, kalitatezko prestakuntza eta espezializazioa jasotzeko aukera dutenak. Era berean, kultura- eta hizkuntza-aniztasuna indartu behar ditu. Eta ororen gainetik, komunitate-metodoa oinarri hartutako Europa soziala garatu behar da, intergubernamentalitatea gaindituta.

Horretarako, herritarrei dagokien ikuspegitik, honako hau eskatzen dugu:

■ Lisboako Itunak aintzat hartutako ekimen herritarraren tresna balioan jartzea, eta bereziki eskatzen diogu Europako Batzordeari horren bideragarritasuna erraztea.

■ Itunetan Europar Batasunak Batasunaren osotasunarentzat garrantzi handiko gaiet buruzko kontsulta-erreferendumak deitzeko aukera txertatzea, ildo horretako ekimen herritarrik egongo balitz.

■ Gizarte zibilak arauak osatzeko prozeduretan parte-hartze handiagoa izatea sustatzea eta,



horretarako, berdintasun-baldintzetan parte hartzeko oztopo gehien dituzten pertsona eta gizarte-taldeei ahotsa emateko beharrezko mekanismoak egituratzea.

- EBren gardentasun eta indartze demokratikoaren alorrean ere jardunbide egokiak sustatzeko politikak lehenestea.
- EBren Estatu kideetako hizkuntza koofizialak

erabiltzeari babes argia ematea, herritarrek Europako erakundeetara jo dezaten;

- EBk hizkuntza koofizial eta ez-hegemonikoak erabiltzeari prestigioa ematen dioten kanpainak bultzatzea eta horiek Horizon 2020, ERASMUS +, CREATIVE EUROPE eta Herritarrentzako Europa moduko Europako programetan erabiltzea bultzatzea, baita Ondare Kulturalaren 2018 Europako Urteari dagozkion jardueretan ere.



7. EUSKADIREN JARRERA

Eusko Jaurlaritzak integrazio europarrarekin duen konpromisoa berresten du eta Europako Estatu, Herri eta Nazioen arteko batasun politikoa osatuko duen Europar Batasunerantz aurrera egiten jarraitzeko prest agertzen da. Europar Batasun horretan, Estaturik gabeko nazioek eta lege-eskumenak dituzten eskualdeek aintzat hartuta izan behar dituzte errealtate politikoaren eskubide osoko subjektu aktiboak izateko ahalmena.

Jacques Delorsek 1992an defendatu zuen moduan, ikuspegi federala da Europako, estatuko eta eskualdeko mailen arteko lotura batu dezakeen bakarra. Eusko Jaurlaritzaren ustez, eredu federalak inspiratu behar du Europaren eraikuntza, komunitate-metodoa eta maila anitzeko egiazko gobernantza oinarri hartuta. Azken horrek ekarriko du beharrezko egonkortasuna eta, aldi berean, politika publikoen eraginkortasun-maila areagotu eta herritarrek Europako proiektuan duten konfiantza indartuko ditu. Hain zuzen ere, maila anitzeko eskema horren baitan Eskualde Konstituzionalak EBren benetako subjektu aktibo izatera igaroko lirateke, eta bete-betean parte hartuko lukete komunitate-politiken diseinuan (dagozkien eskumenen arabera) eta erabakiak hartzeko dagozkien prozesuetan. Horrez gain, EBren Justizia Auzitegian eskubide osoa izango lukete.

Europako Batzordeak Europaren etorkizunari buruzko Liburu Zurian 2025eko Europar Batasunarentzako bost egoera posible proposatzen ditu:

- a) statu quoari eustea;
- b) merkatu bakarra baino ez;
- c) gehiago egin nahi dutenek gehiago egiten dute (abiadura anitzak, geometria aldakorrak, etab.);
- d) gutxiago egin baina eraginkorragoak izatea;
- e) askoz gehiago egitea, bateratuago.

Horiei dagokienean, EBk integrazio-prozesua bermatu behar duela uste dugu eta iraganeko ikasgaietatik ikasi eta errealismoaren eta idealismoaren arteko oreka ezarri behar du. Horri dagokionez, pixkanakako ikuspegi malgua ardatz hartuta aurrera egin behar dela uste dugu, eta helburu komunak lortzeko bidean malgutasun handiagoa izateak ez du esan nahi EB nahieran egindako Europaren bitartez ahulduko denik. Izan ere, nahieran egindako Europa bat Europa eraikitzeko sorrerako espirituaren aurkakoa litzateke. Koherentzia falta gertatzeko arriskuaren aurrean, herritarrentzat ulertezin bilakatzeo zailtasuna gehi daiteke, ia erabilgaitza egiteaz gainera.

EBk bere Itunetan printzipioak, helburu bateratuak eta sortze-politikak barne hartzeaz gain, posible egin behar du komunitate-metodoaren bidez aurrera egiteko asmoa duten herrialdeen zati handiari beto-aukerak murriztea, benetako komunitate-metodoa lortzeko aukera eman dezan. Ildo horretatik, Euroa, Merkatu



bakarra eta ingurumen-, energia- eta klima-politika, lehiakortasun-politika, merkataritza-politika eta segurtasun-politikak eta kanpo- eta defentsa-politika EBren etorkizuneko muinaren parte izan behar dira.

Beraz, indartutako lankidetzarako tresnen bidez aurrera egiteko aukera defendatzen dugu eta horiek, edozein kasutan, guztientzat irekita egon beharko dira. Europa malguago eta gradualago horren mekanikak, idealismoa eta errealismoa batuta, aukera eman beharko luke, egoeraren arabera arrazoiak medio, hainbat proposamen partekatzeko baldintzetan ez dauden Estatu kideak txertatzeko.

Eusko Jaurlaritzak izaera federal eta konstituziogileko Europar Batasuna defendatzen du, demokratikoa, eta

EBko herritarren borondatearen arabera. Asmoari eutsi eta beharrezko malgutasunarekin batera jorratzearen alde egiten dugu, Europaren proiektuaren helburuak pixkanaka eta EBren baitan dauden errealitate heterogeneoetara egokituta lortzeko.

Balio partekatu sendoetan oinarritutako Batasunean sinesten dugu, planetako beste herriei solidario izango dena eta etorkizuneko belaunaldiak konpromisoa hartuko duena; herritar aske eta berdinen Europa bat, herrien elkargune, oparoa, merkatu-ekonomia sozialean oinarrituta eta konpromiso sozial irmoa duena. Azken batean, XXI. mendeko arrisku globalaren gizartearen erronkei aurre egiteko prest egon eta pertsona bere jardueran ardatz kokatuko duen Europa.

